

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

BIOLONTXELO TUTTI 1 HAUTATZEKO LEHIAKETA 2024ko Urriak 2an OINARRIAK:

1. LANPOSTUAREN DESKRIKAPENA.

Bete beharreko postua BIOLONTXELO TUTTIarena da eta indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

2. BETEKIZUNAK.

- 16 urte baino gehiago izatea.
- Goi Titulua edo horren parekidea edukitzea.
- Lana burutzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez edukitzea.
- Ezintasun-kausa legalik ez edukitzea.
- Antzeko zereginak gauzatzean falta larriagatik zigor diziplinariorik ez edukitzea.
- Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo paragrafo honetan sartzen ez diren atzeritarrak izatea, eta, hautatuak izanez gero, nahitaez lortu behar izatea Espainian lan egiteko eta bizitzeko nahitaezko baimena, kontratua hasteko aurreikusitako data baino lehen.
- Salbuespenez, Epaimahaiko Presidenteak (Sekzioko bakarlariaren, eta bere interes berezien arabera) Entzunaldi honetan eskatutako titulazioa ez duten hautagaitzak hartu ahal izango ditu.

3. HAUTAGAIEN ONARPENA.

Hautapen-probetan parte hartu nahi duten pertsonak bern izena eman beharko dute <https://www.muvac.com/vacancy/euskadiko-orkestra-basque-national-orchestra-qy756w9y> helbidean muvac bidez 2024/08/19 a baino lehen.

Atxiki beharreko dokumentu eta artxiboak:

- EBko herritarrak: NANaren edo pasaportearen kopia.
- EB kanpoko herritarrak : Pasaportearen kopia.
- Goi Titulazioaren edo horren baliokidearen kopia.
- Bideoak, Igo Fasean hasten diren hautagaien zat.

Informazio eta kontakto orokorra: pmaiz@euskadikoorkestra.eus Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda web-orrian argitaratuko da 2024/08/20.

Zerrendan agertzen ez diren izangaiak 2 eguneko epea edukiko dute zerrendatik kanpo geratzeko arrazoi izan diren akatsak edo dokumentuak zuzentzeko. Izangaien behin betiko zerrenda 2024/08/22an argitaratuko da.

4. EPAIMAHAIIA.

Epaimahaia Zuzendari Musikala edo Euskadiko Orkestraren Aholkulari Artistikoarekin, Presidente gisa, eta bere Pertsonal Artistikoarekin osatuko da. Zuzendari teknikoa, idazkari gisa; hitzarekin baina botorik gabe eta Zuzendari Nagusiak, Errejidoreak eta Enpresa Batzordeko ordezkari batek parte ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.

5. PROBAK EGITEA.

- Lehiaketa prozedura guztia Orkestraren web orrian jarritako Lehiaketan Araudiaren arabera egingo da.
- Igo Fasea bideo-audioa izango da, I Ariketako obrekin, hautagaiak muvac-en jarri dituzten bideoen arabera.
- Bideo guztiak 2024/08/19 baino lehenago hautagai bakoitzaren muvac perfilean egon beharko dira, hautagaiak bere muvac-eko perfilean baimena eman beharko duelarik bideo horiek Euskadiko Orkestrak ikus ahal ditzan.
- Bideoek gorputz osoak izan behar dute, aurrez-aurre, kamara gutxi gora behera 2,5 metrotara, hondoko horma lau argiarekin, ondoan argirik edo leihorik gabe, eta ahalik eta audio eta bideo kalitate handienarekin.
- Hautagaiak bideo bakarria bidali beharko dute, hartaldi bakarrean egingo eta inolako ediziorik gabe. Bideo horren edizioak zuzenean kanporatuko ditu hautagaiak Euskadiko Orkestrarako instrumentu-jotzaileak hautatzeko lehiaketa honetatik eta gerokotatik. Obrak 1. Ariketan deskribatutako ordenan grabatu beharko dira.
- Aldez aurretik kontratu finkoa edo aldi baterako kontratua indarrean dutela egiaztatzen duten parte-hartzaileak (gutxienez 6 hilabete etengabe) Orkestra edo Ensemble Profesionaleko posizio berean edo goragokoa, 2024/06/14 baino lehen zuzenean 2024/10/02ko Entzunaldi Presentzialera pasatzea eskatu ahal izango dute, edozein obra interpretatzeko prest egoteko betebeharrarekin, baita bideo-entzunaldikoak ere. Eskaera hori onartu den ala ez lehenbailehen jakinaraziko zaio hautagai-zerrenda interesdunari, epaimahaiburuari edo hark eskuordetutako pertsonari kontsulta egin ondoren. Epaimahaiburuak lanpostuaren eta lanpostu osoaren garrantziaren arabera erantzungo du.
- 2024/10/02ko entzunaldi presentzialean onartutako hautagaien zerrenda 2024/09/12a baino lehen argitaratuko da.
- 2024/10/02an, 09:15etan, Lehiaketak aurrez aurre jarraituko du.
- Hautagai guztiak 2024/10/02an erregistratu beharko dira, NANarekin edo pasaporteararekin, 08:00etik 8:30 bitartean.
- Hautapen-probak hainbat Fasetan burutuko dira eta Epaimahaia erabakiko ditu Faseak Ariketa desberdinetako obrak nahastu ahal izango direlarik (baita Ariketa Iekoak, bideo audiziokoak). Faseak kanporatzaileak izango dira normalean; ariketa presentzialetako lehen Fasea, gutxienez, gortina atzean egingo da.
- Epaimahaia, egokitzen duenean, zati zehatz bat interpretatzeko eskatu ahal izango du, edo nahi duenean amaitutzat jo ahal izango du hautagai bakoitzaren proba.
- Entzunaldi honen bukaeran gaitzat hartzen diren hiru lehenengo lehiakideek poltsa bat jasotzeko eskubidea izangodute, bidaia eta ostatu-gastuetarako, betiere egindako gastua ordainagirik ez egiaztatzen bada, gehienez 350,00 €.

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL
ORCHESTRA

6. KONTRATAZIOA.

- Hautatutako izangaiek Orkestraren Administrazioarekin harremanetan jarri behar dute Orkestrak adierazitako daten barruan kontratazioa izapidetzeko beharrezkoa den dokumentazioa bidaltzeko.
- Kontratua mugagabea izango dira eta 6 hilabeteko frogaldia edukiko du. Urteko soldata gordina 47.200 EURO ingurukoa da. Lanean lehen bait lehen hasteko.

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL
ORCHESTRA

BIOLONTXELO TUTTI 1 HAUTATZEKO LEHIAKETA

Lehiaketa presentziala **2024ko Urriak 2an** hasiko da **EUSKADIKO ORKESTRA**ren egoitzan,
Miramongo Pasealekua, 124 zk., Donostia, **goizeko 09:15tan**

I.- ARIKETA: (Bideo entzunaldia)(Errepertorio hau aurrez-aurreko entzunaldian ere eskatu ahal izango da).

Derrigorrezko pieza: I. mugimendua M. Gendronen kadentziarekin (ahal dela pianoaren akonpainamenduarekin).

- J. HAYDN: Biolontxelo eta orkestrarako 2. kontzertua, Op. 101, Hob. VII b, Re maiorrean.

Orkestra-errepertorioko zatiak:

- L. V. BEETHOVEN: 5. sinfonia do minorrean, Op. 67. II. mug. (1)
- R. STRAUSS: Don Juan, Op. 20 (1)
- G. VERDI: Missa de Requiem. 3 zk., Offertorium (1)

II.- ARIKETA : (Aurrez-aurre).

Derrigorrezko pieza: I. eta II. mugimendua, M. Gendronen kadentziekin

- J. HAYDN: Biolontxelo eta orkestrarako 2. kontzertua, Op. 101, Hob. VII b, Re maiorrean

III.- ARIKETA (aurrez-aurre).

Honako kontzertu hauekako bat aukeratu behar da:

- A. DVORAK: Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua, Op. 104, si minorrean. I mug.
- R. SCHUMANN: Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua, Op. 129, la minorrean. I mug.
- P.I. TCHAIKOVSKY: Rococo gai bati buruzko bariazioak, biolontxelo eta orkestrarako, Op. 33. Obra osoa kadentziarekin.

IV.- ARIKETA (aurrez-aurre).

Orkestra-errepertorioko zatiak:

- L. V. BEETHOVEN: 5. sinfonia do minorrean, Op.67. II. mug. (1)
- L. V. BEETHOVEN: Coriolan. Obertura. Allegro con brio (1)
- J. BRAHMS: 2. sinfonia re maiorrean, Op. 73. II. mug. (1)
- G. MAHLER: 4. sinfonia sol maiorrean. I. mug. 11.konpasetik 27.ra (biak barne) eta 322 konpasetik 335.ra (biak barne) (2)
- W.A. MOZART: Die Hochzeit des Figaro, KV 492. Obertura (1)
- B. SMETANA: Die verkaufte Braut. Obertura (1)
- R. STRAUSS: Don Juan, Op. 20.. Allegro molto con brio (1)
- P. I. TCHAIKOVSKY: 4. sinfonia fa minorrean, Op. 36. II. mug. (1)
- G. VERDI: Missa de Requiem. 3 zk., Offertorium (1)
- R. WAGNER: Tristan und Isole. 1. ekitaldia. Einleitung (1)

V.- Lehen begiratzeko irakurketa (aurrez-aurre).

Zatiak eskuragarri hemen:

(1) *Orchester Probespiel = Test pieces for orchestral auditions : Violoncello / herausgegeben von Rolf Becker und Rudolf Mandalka. – Schott, ED 7853. – ISMN M-001-08141-2*

(2) <http://imslp.org/>

* Oinarri hauek hainbat hizkuntzatan interpretatzeko, gaztelaniazko bertsioa izango da erreferentzia argigarria